



**Hizkuntzaren zereginak
arlotan juridiko eta administratiboan**



2010/2011 IKASTURTEA

Joseba Ezeiza Ramos

<http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/>



Hizkuntzaren zereginak arlo juridiko eta administratiboan

Hizkuntzak funtzio ugari betetzen ditu gizakion bizitzan eta gizartearen antolamendu zein funtzionamenduan. Arlo juridiko eta administratiboan ere hizkuntza oinarritzko baliabidea da gizartearen antolamendurako eta Zuzenbidea ezarri, zabaldu eta aplikatzeko. Izan ere, hizkuntzak funtzio ugari eta ezinbestekoak betetzen ditu eremu honetan. Ondoren dituzu zerrendatuta funtzio horien artean azpimarragarrienak. **Nola gauzatzen dira funtzio horiek administrazioan eta arlo juridikoan? Euskarak betetzen al ditu funtzio horiek guztiak eremu horietan?**

Hizkuntzek giza taldeak, nazioak eta estatuak sistema sozial, kultural zein politiko gisa legitimatzeko balio dute: hizkuntzak kulturaren, gizarte-antolamenduaren eta egitura politikoaren euskarri, baliabide eta adierazle garrantzitsuak dira

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Hizkuntza batek estatus-maila jasoago du Zuzenbidearen eta Administrazio Publikoaren eremuetan toki esanguratsua baldin badu. Gizarte horretan aintzatespen, eragin eta indar handiagoa izango du. Euskarak aitortua du hizkuntza ofizialaren estatusa eremu geografiko batzuetan eta administrazioaren, legegintzaren eta jardura judizialaren zenbait arlotan. Baina praktikan bigarren mailako estatusa du oraindik ere; urruti samar erabateko normalizazio-egoeratik.

Euskara hizkuntza ko-ofiziala den heinean, administrazioan eta jurisdikzioan zeregin komunikatiboek (jakinarazpenek, iragarkiek, sententziek...) elebidunak izan beharko lukete. Horrela baino ez dira bermatzen herritarrei ustez aitortzen zaizkien hizkuntza-eskubideak. Administrazioaren jardun askotan betetzen da eginbehar hau, hein batean behintzat, oro har, komunikazio publikoak hizkuntza bietan ematen baitira. Arlo juridikoan, ordea, tramiteko agiriak baino ez dira ele bietan egiten. Eta hori EAEn. Nafarroan eta Iparraldean egoera askoz ere kezagarriagoa delako.

Hizkera juridikoa lanbide-hizkera da, hau da, zuzenbidearekin zerikusia duten talde profesionalen hizkera berezitua. Baina honetaz aparte hizkera kulturala ere bada, kultura juridikoaren ondasuna. Baina hizkera juridikoa, ezeren gainetik, ondare publikoa da; soziala eta gizartearena. Izan ere, zuzenbideak ezarpen orokorra du, gizarte osoari dagokio eta gizarteko kide guztiei zuzentzen zaie. Kontua da, orain arte behintzat, euskarak ez duela alor honetan toki esangarririk izan. Profesional euskaldunek berek ere erdaraz jaso dute ondare hori. Herritarrek ere ohitura gutxi badute gai juridikoak erdaraz joratzeko, are ohitura txikiagoa dute euskaraz. Kasu batzuetan, ikara ere diote euskaraz aritzeari. Izan ere, "herencia" bezalako termino bat guztiok ezaguna da, baina ez da gauza bera gertatzen "jarauntsi" terminoarekin. Ikuspegi honetatik, oraindik bidearen parte bat du egiteko euskarak zuzenbidearen eta jurisdikzioaren hizkuntza ere izateko.

Hizkuntza, giza eta gizarte harremanak sortzeko eta garatzeko erabiltzen da:
komunikazio-tresna garrantzitsuenetako bat da

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Euskarak 700.000 hiztun inguru ditu, baina hiztun horiek sarritan gaztelaniaz hitz egin behar izaten dute euskara ulertzen ez duten pertsonekin daudenean. Gainera, euskara gehienbat familian, lagunaren artean eta konfiantzazko nukleotan erabiltzen da. Izan ere, ezagutzen ez ditugun pertsonekin hitz egiten dugunean gaztelania da nagusi, besteek ulertuko ez gaituztelakoan. Ez hori bakarrik, administrazio eremuan zein arlo juridikoan gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da, oraindik euskara menderatzen ez duen jende asko dagoelako bertan lanean. Euskaraz dakitenek, bestalde, gutxitan ezagutzen dute behar bezainbeste arloko hizkera teknikoa. Horrek nabarmen mugatzen du administrazioan eta arlo juridikoan euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzeko aukera.

Hizkuntzaren bidez arlo jakin hauetako profesionalek haien ideiak transmititzen dituzte, helburu desberdinak lortzeko. Modu berean erakundeak harremanetan jartzen dira bai herritarrekin bai beste erakundeekin. Administrazioan hizkuntza ezinbesteko da jakinarazpenak egiteko, eskaerak jaso eta aurrera eramateko, izapideak egiteko.... Arlo juridikoan ere ezinbestekoa da, bai ahoz, eta batez ere idatziz ideiak, legeak, arauak, ebazpenak...egiteko eta jasotzeko. Zeregin horietarako gero eta maizago erabiltzen da euskara. Hori bai, aldeak ikusiko ditugu lurralde, eskualde eta udalerriaren arabera. Oiarzunen, adibidez, euskara normaltasun osoz erabiltzen da, eta kasu gehienetan lehenetsunez ere. Biasterin, aldiz, euskara oso kasu bakanetan baino ez da erabiliko, eta gehienbat itzulpen-hizkuntza izango da. Edozein modutan, ez dugu ahaztu behar hizkera juridiko eta administratiboa beti dela zaila, eta euskararen kasuan oraindik ez direla erabat garatu eta finkatu euskara juridiko eta administratiboaren ereduak. Horrek ere mugatu egiten du euskara arlo hauetan erabiltzeko aukera.

Komunikatzeko ezinbesteko tresna dugu hizkuntza, honek egiten baitu posible harremana bai jendearekin, bai administrazioarekin. Administrazioan zein arlo juridikoan hizkuntzak eremu handia eta bereziki garrantzitsua betetzen du. Informazio trukaketarako ezinbestekoa da. Alabaina, euskara ez da helburu horrekin oso maiz erabiltzen. Egia da euskara ofiziala dela EAEn eta Nafarroako eskualdi batzuetan, eta aitortuta duela hizkuntza ofizialaren estatusa eremu horietan. Egia da, halaber, azken urteotan aurrerapauso nabarmenak eman direla euskararen normalizazioan eta poliki-poliki irabazi duela leku bat bi eremu hauetan. Baina oraindik bidearen zati luze bat egin behar du euskarak administrazioan eta, bereziki, arlo juridikoan komunikazio-hizkuntza normalizatua izateko.

Argi dago hizkuntza gizakion arteko harremanak sustatzeko tresna egokia dela. Hau horrela izanik, gizakion eta estatuaren arteko komunikazio tresna bezala ere baliagarria dela esan dezakegu. Bere funtzioa bete dezan, erabiltzen dugun hizkuntza-ereduak egokia, landua eta indartsua izan behar du: hizkuntza zenbat eta funtzionalagoa, orduan eta erabiliagoa izango da administrazioaren eremuan edota arlo juridikoan. Era berean, hizkuntza bat zenbat eta gehiago erabili hizkuntza bat administrazioan eta arlo juridikoan, orduan eta status jasoagoa eta aintzatespen handiagoa izango du gizartean. Euskara ez dago oraingoz egoera horretan. Egia da euskara hizkuntza ko-ofiziala dela zenbait eremutan (EAEn eta Nafarroako eskualde batzuetan) eta eremu horietan, Administrazioan –eta zenbait kasutan legegintzan eta jurisdikzioan ere– erabiltzen dela euskara. Baina ia beti bigarren mailako hizkuntza da, itzulpen-hizkuntza. Hiritarrok oso gutxitan erabiltzen, eta erakundeek ere oso gutxitan erabiltzen dute euskara lan-hizkuntza gisa.

Hizkuntza giza eta gizarte harremanak sortzeko erabiltzen den komunikazio tresna izateko bere garapena esparru guztietan ematea ezinbestekoa da. Hau horrela ez bada garatu gabeko esparru horietan komunikazio tresna izateari utziko dio. Euskararen garapena emango bada administrazioan euskara menpeko egoeratik lehentasunezkoa eramatea ezinbestekoa da. Gaur egun euskarak ez du ez administrazioan ez alor juridikoan ere lehentasunezko egoerari; alta, gaztelania da oraindik ere alor hauetan hizkuntza nagusia. Horrela bada, euskaldunen hizkuntza eskubideak zapaldu egiten dira eta hizkuntzak berezkoa duen gizarte harremanak sortzeko eta garatzeko berezko zeregina kolokan jartzen da bai administrazioan baita arlo juridikoan ere. Askotan egoera honek euskaldunak euren berezko hizkuntza, bai administrazioaren bai alor juridikoaren aurrean ere ezin erabiltzera daramatza, balizko komunikazio tresna bat izateari utziz.

Hizkuntza bizitzako edozein esparrutan komunikazio-tresna garrantzitsuenetakoa den aldetik, Administrazio Publikoaren eta orokorrean Zuzenbidearen edozein eremutan herritarren beharrak aintzakotzat hartu ahal izateko, beharrezkoa da euskararen presentzia bermatzea. Bestela, herritarren zerbitzura sortuak diren erakundeak herritarren parte hartzea erraztu beharrean zaildu egiten dute, euskara erabili nahi dutenei aukera hori ukatzen zaien neurrian, eta harreman hauetarako gaztelera erabiltzera behartzen dituzten neurrian.

Hizkuntza barne-adierazpenerako bide emankorrenetako bat da: nork bere nortasuna eta irudia gizarteratzeko, eta beste norbanakoen aurrean modu jakin batean azaltzeko erabiltzen da

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Arlo hauetako profesionalek oso ondo menderatu behar dute hizkuntza, eta trebetasun jasoa garatu behar dute hizkuntzaren bitartez beren solaskideengan eragiteko. Kasu batzuetan itxura "profesionala" transmititu nahi izango dute; beste batzuetan, "distantzia" hartu nahi izango dute; beste batzuetan "zintzo" eta "zuhur" agertu nahi izango dute... Bestalde, egoeraren eta helburuaren arabera, trebeak izan beharko dute solaskideak konbentzitzen, solaskideengandik informazioa lortzen, solaskideari gauzak argi azaltzen, aginduak eman eta betearazten... Euskarak oraindik ez ditu funtzio horiek guztiak sistematikoki betetzen administrazioan eta arlo juridikoan. Administrazioan esperientzia gehiago izan dugu, eta badira langileak trebeak direnak euskaraz orotariko eginkizun funtzionalak betetzen. Arlo juridikoan, aldiz, askoz ere esperientzia txikiagoa dago; ondorioz, profesional elebidun asko ez dira euskaraz gaztelaniaz edota frantsesez bezain trebe eta seguru sentitzen eginkizun komunikatibo horietako batzuk betetzeko orduan.

Hizkuntza ingurunea antolatzeke erabiltzen da: entitateak, definizioak eta sailkapenak egiteko

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Hizkuntzak garrantzia dauka antolaketa garaian honek definitzen baitu zer den antolaketa eta nola gauzatu daitekeen eta horren adibide ditugu entitateak. Horrela gure gizartean sailkapen ugari dago eta sailkapen horiek eta antolaketa horiei hizkuntzak ematen die terminoa eta esanahia. Beraz, hizkuntzak definituko ditu Administrazioako eta arlo juridikoaren inguruko sailkapen eta egiturak.

Hori oso agerikoa da Administrazioan eta, batez ere, Zuzenbidearen alorrean. Alabaina, oso gutxi dira euskaraz jatorriz egindako legeak, arauak, sailkapenak, testuak, definizioak... Gainera, horietako askok huts nabarmenak dituzte. Egia da itzulpengintzak esfortzu ikaragarria egiten duela alor honetan, baina hain handia da egin beharreko lana! Izan ere, euskaraz dauden testu eta lan-kopurua hain da txikia, ezen ia ez du eraginik profesionalen jardunean. Adibidez, unibertsitatean ikasleok egin behar izaten ditugu askotan itzulpenak. Irakasleek eta unibertsitateek ez dute indar handirik egiten egoera hau aldatzeko. Eta horrek esan nahi du, urteak joan urteak etorri, euskara ez dela igotzen doktrina-hizkuntza izateko aukera eskaintzen dion trenera.

Hizkuntzarik gabe ezin izango litzateke Zuzenbiderik egin edota legeak indarrean jarri. Ondorioz, anarkia moduko batean biziko ginatke: legerik ezean, lege urrapenik ez dago eta, beraz, gizabanakoek nahi duguna egiteko aukera dugula esan nahi du, nahiz eta gure ondokoaren eskubideak urratu. Zorionez, gizakiok hizkuntza daukagu eta, horri esker, legeak egin eta indarrean jar ditzakegu. Alabaina, lege gehienak eta jurisprudentzia ia guztia erdaraz egiten da, eta euskarak, izatekotan, itzulpen-hizkuntzaren estatua baino ez du aitortua. Ondorioz, oso hein mugatuan baino ez du betetzen antolaketa-funtzioa.

Antolaketa funtzioak betetzeko, hizkuntza batek terminologia ondo garatua izan behar du, kontzeptuak zehaztasunez mugatu ahal izateko. Haatik, euskararen kasuan, terminologia da hain zuzen ere arazo gehien sortzen dituen gaia. Izatez, arlo juridikoan euskararen terminologia berria dela esan daiteke, eta oraindik ez da guztiz garatu, bateratu eta finkatu. Gertatzen da kontzeptu juridiko bat aditzera emateko batek termino bat eta beste batek beste termino bat erabiltzea; batzuetan, aukera horiek kontraesankorrak ere izan daitezke. Horrek guztiak zaildu egiten dio euskarari Zuzenbidearen esparruan doktrina-hizkuntza izatea.

Hizkuntza gure ingurunea antolatzeko erabiltzen alor askotan. Hizkuntzaren bitartez definizioak, sailkapenak... egiten ditugu. Antolaketa-funtzio hau modu egokian bete ahal izateko, hizkuntzak garatua, landua eta indartsua izan behar du. Hori are garrantzitsuago da administrazioan eta arlo juridikoan, arlo honetako profesionalak oso zehatzak eta argiak izan behar baitute ideiak, definizioak, zerrendak... ematean. Horretarako, profesionalek hizkuntzaren ezagutza jaso izan behar dute. Zoritxarrez, euskarak ez du oraindik behar bezain besteko garapenik izan arlo juridiko eta administratiboan. Modu berean, oraindik gutxi dira euskara maila jasoan erabiltzeko gai diren profesionalek. Hori dela eta, ezin da esan euskarak alor hauetan dagokion tokia lortu duenik doktrina garatzeko tresna gisa.

Hizkuntza oroimenaren euskarri nagusienetako bat da: gertaerak, adierazpenak, erabakiak, arauak... hizkuntzaren bidez gordetzen eta transmititzen dira

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Hizkuntza bat oroimenaren euskarri izan dela esan ahal izateko, historian atzera egin eta hizkuntza horren bitartez utzi diren aztarnak (gertaerak, adierazpenak, erabakiak, arauak...) aztertu behar dira. Gure hizkuntzaren kasuan, urriak dira iraganeko arrastoak (adb antzinako arau gutxi aurkituko ditugu euskaraz idatzita. Gaur egun, bestalde, euskara normalizazio prozesuan dago oraindik. Ondorioz, euskaraz egiten den produkzioa oso mugatua da. Hala ere, gero eta ugariagoa da eta izango da. Alde horretatik, euskarak oraindik oroimen-funtzioa guztiz bereganatu ez duen arren, egun ekoizten diren euskarako testuek funtzio hori beteko dute etorkizunean. Hau da, orain egiten dugun ahaleginak bermatuko du gure ondorengoei euskaraz (ere) transmititu ahal izango zaiela administrazioak, legegintzak eta jurisdikzioak sortzen duten ondarea.

Bi eremu hauetan nahiko berria da euskararen erabilera, eta oroimenaren euskarri izatekotan epe motzeko oroimena jasotzen duena izango litzateke beraz. Administrazioan zein arlo juridikoan euskarak gero eta espazio handiagoa hartzea azken hamarkadetako erronkarik handienetakoa izan da askorentzat, ordea, eta zentzu horretan aurrerapausoak eman direnez, euskaraz jazotako gertaerak, egindako adierazpenak, hartutako erabakiak eta sortutako arauak bere horretan gordetzea ahalbidetu beharko luke

Administrazioan eta arlo juridikoan doktrina, artxibo, akta... asko erabiltzen dira informazioa gordetzeko. Hizkuntza ezinbestekoa da eginkizun horretarako. Euskarari bagagozkio, ordea, ikusiko dugu ez duela oraindik funtsezko oroimen-eginkizunik betetzen, itzulpen-hizkuntza bezala ez bada. Egia da gero eta gehiago direla euskaraz ere jasota geratzen diren legeak, dokumentuak eta bestelako materialak. Baina, zoritxarrez, euskarazko atala ia inoiz ez da jatorrizkoa; bestalde, dokumentu elebidun horiek gutxitan kontsultatzen eta erabiltzen dira euskaraz, besteak beste, zalantza kasuan, gaztelaniazkoak baino ez duelako lege-indarririk izango.

Administrazioan egindako idazkiak nahiz Zuzenbideko lege-testu, epai eta bestelako dokumentuak gazteleraz egiten dira ia beti, eta itzulpenek ez dute oroimen-funtzioa betetzen. Itzulpenen helbura material horiek denentzat eskuragarri egotea bermatzea da; ez besterik. Hala ere, administrazioan errazagoa da euskarazko oroimen-dokumentuak topatzea (aktak, txostenak..). Baina arlo juridikoan bazterreko funtzioa betetzen du euskarak.

Hizkuntzaren bidez historia idazten da, eta historia erabiltzen den hizkuntzaren arabera desberdina izan liteke; izan ere hizkuntza naziokotasun, ideologia, jaioterri edo kultura bati loturik egongo da ia beti, eta horrek eragina izango du historia kontatzeko, transmititzeko eta ulertzeko eran. Adierazpenak, ebazpenak eta erabakiak hizkuntza zehatz batean gordetzeak horiek ulertzeko eta interpretatzeko era ere alda dezake.. Hizkuntza batek, hizkuntza hori ulertuko duten pertsonen kopurura murrizten du bere eremua, eta beraz kultura, ideologia edo pentsaera mota batzuetara murrizten da arau, adierazpen edo erabaki horien esanahia.

Hizkuntza gogoetari bide emateko erabiltzen da: gogoetak hitzetan zein irudietan mamitzen dira; hizketak eta idazketak gogoeta suspertzen du; hizkuntzak pentsamenduak egituratzeko balio du.

Administrazioan / Arlo Juridikoan

Beste esparru askotan bezala –esparru akademikoan edota politikaren jardunean, adibidez- hizkuntzak ideiak trukatzeko, lantzeko eta adosteko erabiltzen da. Lege bat, adibidez, hizkuntza-ekintza askoren emaitza da: politikoen arteko eztabaidak, adituen irizpenak, tekniko juristen testu-lanketa, herritarren ekarpen eta alegazioak... Ekintza horiei esker lege-testua forma hartzen joaten da; ikuspegi jakin bat mamitzen doa; edukiz hornitzen eta aberasten doa; zehaztasun teknikoaz janzten da... Horrekin guztiarekin, hasieran ideia lauso eta zehaztugabea baino ez zena, arian-arian forma hartuz joango da, eta eragileen “buruan” bertan ere beste ikuspegi bat, beste “eskema” bat sortuko da. Administrazioan eta arlo juridikoan ugariak dira antzeko adibideak. Beste bat aipatzearren auzien instrukzio-egiteak jar daitezke adibide-moduan; edota administrazioak egiten dituen deialdien testuen lanketa; eta abar.

EUSKARA JURIDIKOA I

